

Euskal AEko industria-jarduera % 8,5 hazi da 2021eko abuztuan


2021eko lehenengo zortzi hilabeteetan Industria Produkzioaren Indizeak metatutako hazkundera % 13,0 izan da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa, 2021eko abuztuan, 2020ko hil berean baino % 8,5 handiagoa izan da. 2021eko lehenengo zortzi hilabeteetako balantzearen amaieran, industria-jarduerak % 13,0koigoera izan du.

Abuztua aurreko hilarekin, 2021eko uztailarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 0,3 hazi da, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko abuztuko indizearen bilakaera, 2020ko abuztuarekin alderatuta, positiboa izan da industria-sektore handi guztietan, *Energian* izan ezik, % 5,9 jaitsi baita 2021eko abuztuan. Sektorre honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolio finntzea.

Ekipo-ondasunak, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialaren egitea eta aireontziak edo itsasontziak egitea barruan dauden, % 20,8 igo dira; halaber, *Bitarteko ondasunak* % 8,5 igo dira urte artean (horien artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa).

Kontsumo-ondasunek, oro har, % 4,5eko igoera izan dute; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 22,2ko igoera izan dute, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 1,8koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko abuztua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Abu2021 / Abu2020	A(Abu2021) / A(Abu2020)(*)	Abu2021 / Uzt2021	Uzt2021 / Eka2021
Indize orokorra				
Euskal AE	8,5	13,0	0,3	1,3
Araba/Álava	18,5	12,6	3,6	6,1
Bizkaia	5,0	10,6	-1,5	0,5
Gipuzkoa	6,8	15,5	0,0	-0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	4,5	12,2	-5,6	1,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	22,2	39,4	-8,9	-0,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,8	6,7	-4,7	1,5
Ekipo-ondasunak	20,8	15,2	-0,6	6,9
Bitarteko ondasunak	8,5	16,5	0,0	0,4
Energia	-5,9	-5,0	-1,8	-2,9

(*) 2021eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko abuztuan urte arteko susperraldi handiena izan dutenak izan dira *Garraio-materiala* (% 42,7ko hazkunde), *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 18,2koa) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 16,9koa). Aitzitik, urte arteko bilakaeran zeinu negatiboa izan duten sektoreak hauexek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 10,4ko jaitsiera), *Material eta ekipo elektrikoa* (% 9,1eko jaitsiera) eta *Kautxua eta plastikoak* (% 1,0koa).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	16,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-10,4
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,0
13 - Makineria eta tresneria	13,5
14 - Garraio-materiala	42,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-9,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	18,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Abuztuko Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Araban % 18,5 igo da, Gipuzkoan % 6,8 eta, azkenik, Bizkaian % 5,0.

2021eko lehenengo zortzi hilabeteetako metatuan, Gipuzkoa izan da hazkunde handiena izan duen lurraldea, % 15,5eko igoerarekin; ondoren Araba dago, % 12,6rekin, eta azkenik, Bizkaia, % 10,6rekin.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) metodologia-oharrean emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak ematen dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, abuztuko indizea laginaren % **94,67ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62